

## **EROSKI-K EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA ORDEZKATUKO DU HONDAKINEN PREBENTZIORAKO EUROPAKO ASTEAN ENPRESEN KATEGORIAN**

- **"Denon ardura da janaria alferrik ez galtzea" izeneko ekimenarekin izango da hautagai**
- **"Fruta eta barazki itsusiak" sustapen kanpainakoa da ekintza hori, eta haren helburua da kontsumitzaileak sentsibilizatzea eta gabezia estetikoak dituzten produktuen salmenta sustatzea**
- **Ihobek eta Elikak aukeratu dituzte hautagaiak erregistratutako 225 ekintzatatik**
- **EROSKIk janaririk alferrik ez galtzeko konpromiso argia du, eta horretarako garatua du 'Ez alferrik galdu' programa**

**Elorrio, 2025eko urtarrilaren 28a.-** [EROSKI](#)k enpresen kategorian, EAE ordezkatu du Hondakinen Prebentziorako Europako Astea; ekainean izango da sariak banatzeko zeremonia. European EAE ordezkatu duten proiektu finalistak 225 ekimenen artean aukeratutakoak dira; ekimen horiek Hondakinen Prebentziorako Europako Astea aurkeztu ziren azaroan, "Gustu ona ez da galtzen" lelopean egindako ekitaldian.

Zehazki, "Denon ardura da janaria alferrik ez galtzea" izeneko ekimenagatik izango da hautagai EROSKI. EAEko Hondakinen Prebentziorako Europako Astea, EROSKIk zenbait ekimen gauzatu zituen; horien artean, "fruta eta barazki itsusiak" sustapen kanpaina nabarmentzen da. Kanpaina horren helburua da kontsumitzaileak sentsibilizatzea eta gabezia estetikoak dituzten baina nutrizio eta segurtasun aldetik ezin hobeki dauden produktuen salmenta sustatzea. Produktu horiek prezio lehiakorragoak eskaintzen dizkiete kontsumitzaileei, pizgarri izan daitezen erosteko orduan eta ez daitezen alferrik gal.

Europako Batzordearen ekimen hori, EAEn, Ihobek koordinatzen du, eta helburutzat du erakustea administrazioek, elkarteek, ikastetxeek, pertsonak eta enpresek nolako ekimenak bultzatzen dituzte hondakinen prebentzioa eta birziklapena bultzatzeko.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Ekintza horretan, lhobek Elikaren laguntza izan du; izan ere, hondakinen galera da aurtengo ardatz nagusia.

EROSKirekin batera, partaide izango dira: Bizkaiko Foru Aldundiak, administrazio publikoen kategorian; Bilboko Duara berrikuntza iraunkorrerako agentzia, GKE-elkarteen kategorian; Maestro Garcia Rivero eskola publikoa (Atxuriko Eskola) ikastetxeen kategorian; eta Garazi Sanchez surflaria herritarren kategorian.

### **EROSKI, aurrendaria elikagaiak alferrik ez galtzen**

EROSKik janaririk alferrik ez galtzeko konpromiso argia du, eta horretarako garatua du 'Ez alferrik galdu' programa. Programa horri esker, jateko on dagoen elikagairik ez da botatzen dendetan; aitzitik, saltokien inguruan dauden elkartasun erakundeei ematen dizkiete. 2013an, jada, aitzindaria izan zen EROSKI Espainiako banaketa kateetan janaririk alferrik ez galtzen bere hipermerkatu eta supermerkatu sare osoan.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
PATRICIA MARTÍN SANCHIDRIÁN

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)